

HILBERRIA



Valentin Bengoa. Sindikalista eta jesuita

M.A.L.

Valentin Bengoa Etxebarria ELAko militante historikoa eta jesuita zendu zen atzo. 1923an jaio zen, Aretxabaletan (Gipuzkoa), eta han lotu zitzaion sindikalismoari, gerra aurreko urteetan, aitaren eskutik, German Kortabarria ELAko buruzagi ohiak gogoratu duenez: «Orduan emetako kontzientzia aber tzalea eta ahulenekiko konpromisoa berekin eraman ditu azken hatseraino». Jesusen Lagundian sartu ostean, Nikaraguara joan zen; mugimendu sandinista eta askapenaren teologia ezagutu zitu en han. «Militantzia sindikala izan zen konpromiso erlijioso ga uzatzeko bere bidea», erantsi du Kortabariak. Gaur izango da hileta elizkizuna, Azpeitian, Loiolan (Gipuzkoa), 18:00etan.